

Euskararen Gaitasun Agiria


IDAZLANA 05-03-12

- 1. Argi idatzi behar da, eta al bait garbien.*
- 2. Idazlanak gutxienez 300 hitz izan behar ditu.*
- o. Idazlanaren kalifikaziorako ondoko hiru alderdi hauek izango dira ardatz:*
 - a) gaiaren eraketa eta garapena;*
 - b) hizkuntza-aberastasuna eta zehaztasuna;*
 - e) zuzentasuna.*
- 4. Orrialde bat izango duzu gidoia egiteko, apunteak biltzeko... Ez da zuzenduko.*
- 5. Hurrengo orrialdeetan bi gai proposatzen zaizkizu, bat aukeratu eta garatzeko. Gaiak garatzeko, laguntza moduan, dossier bana eta puntu batzuk dituzu: galderak, gogoetak. iritziak... Ez dira nahitaez kontuan hartu beharrekoak; zuk zeuk aukeratutako bestelako ikuspuntu edo alderdi batzuetan oinarriturik ere egin dezakezu.*
- 6. Aukeratutako gaia garatzeko iritzi askatasuna duzu. Beti ere, begirunez joka ezazu: saihestu jarrera sexistak, homofoboak, arrazistak...*

EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA

2005eko martxoaren 12ko IDAZLANA

GAIA ZIBER EUSKARA



Gaztebulo 28, 2003

«Kxo 2hotza
zrmmdz? Zr in ber
dzu gaur?
Erntzn»

«Ziber euskararen
ezaugarri nagusiak
laburdurak dira.
Txatetan, e-mailetan
eta eskuiko telefono
bidezko mezuetan
erabili ohi dira.»



Zazpiak Berriak, Kolaiboa

ZIBER EUSKARA.


Hizkera hori
ahozko
komunikazioaren
eta idatzaren
artean dago.



Gaztebulo 28, 2003
Josune Martinez de Albeniz

AKABO
IDAZTEA:
LASTER
AHOZKO
MEZU
GRABATUAK
ETA
IRUDIAK
BIDALTZEKO
AUKERA.

© Olariagak



Berria, 2003.9.12

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Mintzatu ala idatzi? Zein da erosoagoa? Abantailak, eragozpenak.
- Mugikorretako idazkera eta ortografia berezia: puntuak eta komak ezabatuta, eta abar.
- Zer da idazkera hori bultzatzen duena? Alferkeria, aurrezteko gogo, astirik eza...
- Idaztearen eta hitz egitearen tarteko zerbait ote da fenomeno hori?
- Euskara berri bat sortzea ekarriko ote du fenomeno horrek?
- Mezueta kode berezia nagusituko ote da irakaskuntzan? Zer ondorio izango ditu?

Bullying-a: ikastetxeetan ikasle batzuek beste bati nahita egindako eraso sistematikoa.

☐ Ikasleen %6k aitortzen dute inoiz ikaskideek eragindako tratu txarrak jasan dituztela

☐ Gazteen %5,8k aitortzen dute inoiz tratu txarrak eragin dituztela

Erasotzailea
nagusitasun-
menpekotasun
harremanak
izaten
ohitzen da.




Andrea Taubert

El Semanal, 886 zk

Bully-a edo
ERASOTZAILEA
ERA BATEKO
EDO BESTEKO
TRATU TXARRAK
JASANDAKO
HAURRA IZAN
OHI DA.

El Semanal, 886 zk



Biktimaren
zenbait sintoma:
umore aldaketa,
ikastetxera joan
nahi ez izatea,
kontzentratzeko
zailtasuna, gaizki
lo egitea,
bakarrik egotea,
ubeldurak...

El Semanal, 886 zk



Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez).
Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Bullying-a: gaur egungo arazoa ala betikoa?
- Erasotzailearen eta biktimaren ezaugarriak.
- Bullying-aren ondorioak.
- Zer egin dezake tratu txarrak jasaten dituen haurrak? Eta irakasleek? Eta gurasoek?
- Norena da erantzukizuna? Irakasleena, gurasoena, gizarte osoarena...